



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarrtasun Sailburuordetza
Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático

EBAZPENA, 2022ko [hilabetea]ren [eguna]ekoa, Natura Ondare eta Klima Aldaketa zuzendariarena, Ingurumeneko Aholku Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen duen Dekretu Aurreproiektuaren entzunaldiko eta jendaurreko informazioko izapidea egiteko dena.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko martxoaren 8ko Aginduaren bidez, Ingurumeneko Aholku Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari ekin zitzaion.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikulua arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute; era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen duenean, jendaurrean jarri beharko dira.

Era berean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko martxoaren 8ko Aginduaren arabera, Ingurumeneko Aholku Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektua herritarrei entzuteko izapidearen mende jarriko da, eragindako herritarrek biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta xedapenaren xedearekin zuzeneko lotura duten erakunde eta elkarten bitartez, arauaren izaera aintzat hartuta, uste baita hori dela bide egokia entzunaldi-izapidea egiteko. Era berean, dekretu-proiektua jendaurrean jarriko da.

Azaldutako guztiagatik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 7.m) artikulua zuzendari-kargua duten pertsonen ematen dien eskuduntzari jarraikiz, honako hau,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidearen mende jartzea Ingurumeneko Aholku Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen duen Dekretuaren Aurreproiektua, hilabete bateko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarrena.- Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko, Ingurumeneko Aholku Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen duen Dekretuaren Aurreproiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hasiera/>) eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ekonomiaren-garapen-azpiegitura-saila/>).

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaria;
ADOLFO URIARTE VILLALBA.

